

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Inoizko udarik ederrena



ARITZ GALARRAGA

Orain arteko udarik ederrena izan zen Galizian eman genuen hura, Burela, Esteiro, Oimbra, batez ere Oimbra –goangarriena ere bai, bidaiaren erdian Rafael Chirbesen heriotzaren berriak kolpatu gintuen eta–. Urtetik urtera saiatu izan naiz gero –saiatu, ohikoa dudan intentsitate txikiarekin, noski– uda hura hobetzen, sikiera berdintzen; baina ez dut sekula lortu. Orain arte. Auskalo bost hilabetea etxetik ia atera gabe egon garelako edo, baina a ze abuztua, lagunok, a ze abuztua. Ibili gara zaldiz, promenatu gara mendi-bideetan, freskatu gara itsaso, erreka, igerilekuan. Ikusi dugu Vincent Cassel herriko taberna batean. Eta irakurri dugu *Un été avec Pascal*.

Pascal, a ze tipoa, arduratuegi nabaritu dut jendea katolikotzeko ahaleginean. Gogoan gordetzeko kontu batzuk, halere. Hogeita hemeretzi urterekin hil zen. Marxistek beti errespetatu izan dute. Hitz hanpatuak gorroto zituen, espezialisten pedantismoa, jakinduriak ez zuela umiltasuna ziurtatzen zioen. Eta pandemia garaiotarako sententzia ahaztezin hau: norbere gelan lasaiki egoten ez jakitetik datorkeela gizakiaren malura. O, bai, zeinen gauza ona litzatekeen erretiratu, gelditu, deskantsatu ahal izatea. Antzinako jakitatearen ideala omen, dio Antoine Compagnonek. Baina ez ote da nahikoa oporraldi bat, laburra, adibidez udakoa, uda ofizialekoa, ez ote da nahikoa abuztu bat areagotzeko gizakiaren buruko mina eta deserrotzea? Ezen, pausatzen garen unetik beretik, aurre egin behar izaten baitiogu gure izateari.

Abuztu honetan, beraz, ibili gara zaldiz, promenatu mendi-bideetan, freskatu itsaso, erreka, igerilekuan. Ikusi dugu Vincent Cassel herriko taberna batean. Eta, kontxo, Pascal ere irakurri dugu. Izango da halere burmuina gutxien erabili dudan uda? Izango da burmuina gutxien erabili dudan uda. Inoizko udarik onena. Hurrengo udara arte, besterik ez bada. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com

ELEBITASUNA

...MASKARA, ESKUAK GARBITU, DISTANTZIA SOZIALA MANTENTZEKO PROTOKOLOA BLA BLA... GALDERARIK?



ELEBIKERIA

ETA ORAIN ERDARAZ, EUSKARAZ EZ DAKITENENTZAT...



ADUR

“TUTERAKO HILTEGIAREN LAN BALDINTZAK EGOKIAK DIRA BIRUSAREN HEDAPENERAKO”

ELA SINDIKATUA

Tuterako Uvesa enpresan 197 langilek positibo eman du koronabirusa atzemateko testean, 713 langileko enpresan. Sindikatuak aspaldi ari ziren salatzen enpresan ez zirela behar adina babes neurri. “Hiltegiaren lan baldintzen ezaugarriek eta bertako temperaturek baldintza egokiak sortzen dituzte birusaren hedapenerako”, adierazi du ELAK. Pozik hartu dute aldi baterako enpresa ixtea. “Enpresek jakin behar dute langileen artean kutsatze-arriskuak murrizteko inbertitzea dela aukerarik errentagarriena”. 2020/08/28

